

# Getxo >MEETING<



## **Azaroak 3** **Gakoak zure sustapen-ekitaldirako.**

Zure enpresa ezagutarazteko ekintza batek hainbat formatu izan ditzake. Hona hemen adibide batzuk:

- Aisialdiko jarduera bat, zure lanbidearekin zerikusia duena.
- Prestakuntza-tailer bat, zure negozioarekin lotutako gai baten inguruan kontzientziatzeko helburua duena.
- Instagrameko zuzeneko bat, elkarrizketa eta guzti.
- Esperientzia iradokitzailea, zerbitzu edo produktu berri bat probatzeko.
- Stand bat azoka batean
- Jarduera bat beste negozio batekin lankidetzan, Getxo AktibaTUn egiten den bezala!

**Ekonomia-Sustapena / Promoción económica**

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



Egiten duzuna egiten duzula, ideia konkretuan pentsatzen hasi aurretik, ulertu behar duzu:

- Zein publikorengana zuzendu nahi duzu?
- Zein unetan dago?
- Zer behar du zu kontratatzetik gertuago egoteko?

Horrela, hobeto bideratzen eta lehenesten lagunduko dizu:

Erakarri nahi duzun publikoaren

- eremu geografikoa
- adina, interesak
- ezaugarri zehatzak.

Sustapen-ekitaldi bat izan daiteke:

- Komunikazio-kanpaina ona, berez.
- Zeure burua ezagutarazteko modu bat, zutaz inoiz entzun ez duten esparruetan.

Horregatik ez izan porrotaren beldur. Zure hitzaldia zabaltzearekin bakarrik lortuko zenuen dagoeneko daukazuna baino oihartzun handiagoa. Hain larria al da gero inork zure tailerlean izena ematen ez badu?

Azken batean, zure sustapen-ekintzak zuzeneko salmentak eta berehalako emaitzak izan ditzake. Edo ez. Baina pentsatu horretaz haziak landatzean bezala. Landare batzuei kostatuko zaie haztea, beste batzuei ez hainbeste. Agian inoiz loratuko ez diren bezeroak egongo dira. Baina nork daki, zure sustapen-ekitaldiari esker, informazio hori etorkizunean beste bezero potentzial batzuegana iristen den.

**Ekonomia-Sustapena / Promoción económica**

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica>



Jarrai gaitzazu: / Síguenos en: